

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 318/2017 Erabakia, maiatzaren 30ekoa, behin betiko onartzen duena Aguraingo ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzoruen mugaketa**

Martxoaren 17ko 150/2017 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onarpena eman zitzaion Aguraingo udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergapeko hiri lurzoruen mugaketari, zeina urriaren 6ko 242/2016 Foru Aginduaren arabera egin baitzen. Foru agindu horrek behin betiko onartu zuen Aguraingo hiri antolamendurako plan orokorra, Egileor, Alangua eta Arrizalako herriguneei dagokienez, bai eta onartu ere 148/2011 Foru Aginduan ezarritako baldintzak betetzea.

Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenak, 4. idatz zatiko 11. artikuluan ezarritako 15 eguneko epea igarota, bai eta Aguraingo Udalak egoki irizitako alegazioak aurkezteko emandako luzapena ere, udalak zenbait alegazio aurkeztu ditu 2017ko maiatzaren 15eko idazki baten bidez, zeinak Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuko teknikariek aztertu baitituzte, baina ez dute inolako aldaketarik eragin behin-behinean onartutako mugaketan.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onarpena ematea Aguraingo udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergapeko hiri lurzoruen mugaketaren aldaketa partzialari, zeina urriaren 6ko 242/2016 Foru Aginduaren arabera egin baitzen. Foru agindu horrek behin betiko onartu zuen Aguraingo hiri antolamendurako plan orokorra, Egileor, Alangua eta Arrizalako herriguneei dagokienez, bai eta onartu ere 148/2011 Foru Aginduan ezarritako baldintzak betetzea.

Bigarrena. Hori gorabehera, kontuan izan behar da uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zergarenak, 3.2.b) artikuluko a', b', eta c' idatz zatietan ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupaturiko eta herriguneei dagokien kanpo kokaturiko lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn eta lurralde historikoan zabalkunde handiena duten egunkarietan argitaratuko da. Gainera, jendaurrean egongo da 15 egun, egoki irizitako erreklamazioak jar ditzaten interesdunek. Aguraingo Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe ezartzen baitute uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenak, 11. artikuluko 5. idatz zatian, eta hura arauz garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 30a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**

*Ogasun zuzendaria*

**TERESA VIGURI MARTÍNEZ**